

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2022ko martxoa

2022ko martxoan 232.815 gaualdi gehiago izan dira aurreko urtean baino Euskal AEko hotel-establezimenduetan

Atzerriko turisten sarrerek bost aldiz gehiago izan dira 2022ko martxoan

Eustatek landutako datuen arabera, **2022ko martxoan** Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek % 132,5 gehitu dira, eta gaualdiak % 146,5, urte arteko terminoetan.

Guztira 209.119 sarrera izan dira, eta 391.781 gaualdi. 2021eko martxoan 89.930 sarrera eta 158.966 gaualdi izan ziren.

Atzerriko jatorriko pertsonen sarrerek guztizkoaren % 31,6 izan dira, eta gaualdiak % 32,9. Duela urtebete, aldiz, atzerriko jatorriko sarrerek guztizkoaren % 14,7 izan ziren, eta gaualdiak % 16,2.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek, gaualdiak, batez besteko egonaldia. Martxoa 2022

	Sarrerek		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2022/03	m/m-12 (%)	2022/03	m/m-12 (%)	2022/03	2021/03
EUSKAL AE	209.119	132,5	391.781	146,5	1,87	1,77
Estatukoak	143.055	86,5	263.029	97,4	1,84	1,74
Atzeritarrak	66.064	399,7	128.752	400,1	1,95	1,95
Araba/Álava	30.441	97,2	58.902	101,6	1,93	1,89
Estatukoak	24.384	79,8	45.825	79,6	1,88	1,88
Atzeritarrak	6.057	222,9	13.077	253,2	2,16	1,97
Vitoria-Gasteiz	23.568	113,7	47.769	115,0	2,03	2,01
Bizkaia	91.382	146,8	171.384	152,2	1,88	1,84
Estatukoak	64.240	95,6	115.262	97,6	1,79	1,78
Atzeritarrak	27.142	547,8	56.122	483,4	2,07	2,30
Bilbao	65.131	179,0	118.946	196,7	1,83	1,72
Gipuzkoa	87.296	133,0	161.495	161,3	1,85	1,65
Estatukoak	54.431	79,6	101.942	106,4	1,87	1,63
Atzeritarrak	32.865	359,4	59.553	379,4	1,81	1,74
Donostia / San Sebastian	55.714	158,2	100.702	196,0	1,81	1,58

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Apirilaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Hotel-establezimenduetako hileko sarreren % 14,6 Araban izan dira, % 43,7 Bizkaian eta % 41,7 Gipuzkoan. Gaualdiei dagokienez, Araban 58.902 izan dira, gaualdi guztien % 15,0; Bizkaian 171.384 izan dira, guztien % 43,7; eta Gipuzkoan gaualdiak 161.495 izan dira, Euskal AE osoan erregistratutako guztien % 41,2.

Hiru lurraldeetan, hala sarrerak nola gualdiak nabarmen igo dira, eta atzerriko turistenak nabarmentzen dira. Sarrerei dagokionez, Bizkaia nabarmentzen da, guztira % 146,8ra iristen baita; ondoren, Gipuzkoa dago (% 133,0), eta, azkenik, Araba (% 97,2). Gipuzkoan igo da gehien gualdien kopurua (% 161,3), gero Bizkaian (% 152,2) eta, azkenik, Araban (% 101,6).

Sarrera- zein gualdi-kopuruak nabarmen egin du gora hiru hiriburuetan ere. Sarrerak % 113,7 igo dira Gasteizen, % 179,0 Bilbon eta % 158,2 Donostian. Era berean, Gasteizen % 115,0 gehitu dira gualdiak, Bilbon % 196,7 eta Donostian % 196,0.

Euskal AE osotara harturik, 2022ko martxoko batez besteko egonaldia 1,87 egunekoa izan da, hau da, 2021eko hilabete berean lortutakoa (1,77 egun) baino luzeagoa.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Martxoa 2022

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2022/03	p.p. *	2022/03	p.p. *	2022/03	m/m-12 (%)	2022/03	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	40,3	18,0	50,2	19,8	73,24	17,5	36,74	94,3
Araba/Álava	42,7	18,0	56,1	22,1	71,55	20,9	40,12	99,6
Vitoria-Gasteiz	44,7	20,0	61,4	25,7	62,97	7,2	38,64	84,4
Bizkaia	38,3	18,2	48,4	20,0	73,55	24,1	35,57	112,0
Bilbao	41,4	22,5	51,1	25,6	76,98	26,7	39,31	153,6
Gipuzkoa	41,8	17,5	50,3	18,9	73,54	8,9	36,96	74,3
Donostia / San Sebastian	44,3	18,0	50,3	17,5	86,11	10,6	43,34	69,6

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Apirilaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AE osotara harturik, 2022ko martxoko okupazio-mailak % 40,3ra iritsi dira plazen arabera neurtzean, eta % 50,2ra gelen arabera neurtzean. 2021eko martxoarekin alderatuta, hazkundeak ehuneko 17,9 eta 19,9 puntukoak izan dira, hurrenez hurren.

Errentagarritasuna, ADRren edo eguneko batez besteko tarifaren bidez neurtuta, 73,24 eurotan kokatu da Euskal AE osoan 2022ko martxoan. Lurraldeari dagokionez, balioak antzekoak dira: Araban 71,55 euro, Bizkaian 73,55 euro eta Gipuzkoan 73,54 euro. Hiriburuaren arabera, ADR 86,11 eurokoa izan da Donostian, 76,98 eurokoa Bilbon eta 62,97 eurokoa Gasteizen.

Euskal AEn RevPar 36,74 eurokoa izan da 2022ko martxoan, 2021eko martxoan lortutako 18,91 euroen oso gainetik.

Informazio-oharrak

ADR eta RevPAR serieak berriz zenbatetsi dira 2020ko urritik aurrera, estimazio-ereduan doikuntzak behin sarturik behatutako ADRren eta *online* erreserbako plataformetan jasotako tarifen arteko erlazioan aldaketa koiunturalek duten eragina kontrolatzeko.

Hotelen ETHIren estaldura % **92,0koa** izan da martxoan. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei eginiko ahaleginagatik.

<https://www.eustat.eus/dgsServicesWar/MainId?gsservice=apps&gsrequest=getApplication&idapp=EUSTAT>

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62